


ARRASATE ^{PRESS}

1993ko irailak 3

202. zenb.

Kultura

**Jon Balentziagarekin
elkarrizketa**



**Ondarea
zaindu guran**

Jauregizar (Perikona, Garagartza)

Garagartzako plazan, Eguzki kale aldien dauen "Ugaran" restaurantie dou gaur aztertuko dou basarrixo. Gaur egun jente gehixenak Perikona moduen ezautu arren, 1866ko zenso baten Jauregizar izenaz agerketan da. Bertan bizi die Patxi Barrutia, Pakita Ortega eta euren alabie, Nerea.

Aldamenien einde daukien etxe barrixen topau dou Patxin ama, Eladia Argarate Arana, Baztargaingo alabie. Eladi, Perikoneko Bixente Barrutia Zuazubiskarrekin 1943en ezkondu zan. Hiru seme-alaba izan zittuen: Jokin, Patxi eta Arantxa.



Beti basarrittik bizi izan zien. Bixente gazte-gaztetatik landara saltzen plazarik plaza ibiltten ikesittekue zan. Astabanastak landaraz bete eta mutikotiek kuadrillan Gernikara


faten zien, baitte handik Bermiora be salmenta eskasa eukitten eunetan, tarteko gau hori bazterren baten pasaute gero. Bueltan etozenerako naustuek Azpe-Arazolara


urteten utsien handik honako bideko lapurren billurrez.

1967rarte, hil aurtxorarte, jarraitu eben Bixentek Gernikako plazara faten.


Eladi barrez, Durangora eta inguruko plazerara faten zan. Perikonekue eta Aixpekue ei zien Garagartzako plazan ezzen larrin bakarrak eta bertan jotzen zien plaza inguruko gari guztiek.

Gari denboretan ohittura zan Garagartzatik Udelara lagunketan fatie. Udelarrak ordainetan billotsa eta perretxikuek jaten emoten eutsien. Barrez garagartzarrak udelarrei gari batzera hona etorten zienien eskailuek emoteko ohitturie euen.



 **KÖMMERLING**
PVCzko leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

Gatzagan,
erdi erdian...
**ZUHAITZ
JATETXEA**




**AFARI ETA
BAZKARI
EDERRAK!**

Tfnoa: 71 46 08

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

**Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11**



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Ezkondu baten erantzuna


Kaixo Rufina:
195. alean, 93ko ekainaren 4ean
argitaratutako zure eskutitzaren
hainbat punturekin ez nator bat eta nire ikus-
pegia azaltzea erabaki dut.

Euskalduna izanik, pena handia, ikara-
garria enaten dit nire bikoteak euskaraz ez
jakiteak, eta beraz, gure harremanak euska-
raz ez izateak. Hala ere, askoz ere pena
handiagoa ematen dit euskaldunon artean
hori bera gertatzen denean. Kasu bakoitzean
sentitzen dudana "pena" hori oso ezberdina
bada ere, lehenengo kasuan berak hizkuntza
ezin duelako bere osotasunean "sentitu", eta
bigarrean
gure burua-
ri harriak
botatzen
ari gare-
lako.

B e -
rak eus-
karaz ez
dakielako
nire euskaldun izae-
ra onartzen ez duela esa-
tea lartxo dela deritzot.
Zuk zeuk ondo diozun be-
zala, eguneroko bizitzan
sortzen diren gorabehe-
rei aurre egiteko elkarren-
ganako errespeto, adiski-
detasun eta maitasun
sakon eta zabala beha-
rezkoak dira, eta hauek
dira, hain justu ere, biko-
teak elkarrekin sortuko
duenaren oinarri eta zuta-
beak.

Osagai horietatik bat kanpoan geratuz
gero, aldiz, harremanak eten egiten dira eta
komunikazioa desagertu. Esaidazu zein hiz-
kuntzak konpon dezakeen egoera hori: ez
euskarak, ez gaztelarak, ez frantsesak, ez
ingelesak..., ez dago hori konponduko duen
hizkuntzarik osagarri guztiak lortzen ez di-
tugun artean.

Zorionez, ez dut uste euskaldunok "geto"
edo "tribu" hertsu bat osatzen dugunik; nere
inguruan bikote "heterogeneo" asko ikusten
dut nere kasu berean eta bata euskalduna,
hau da, euskaraduna ez izanagatik, seme-
alabak euskaraz hazten ari dira eta zu eta ni
bezain euskal-
dunak dira,
e u r e n
arbaso
guztiak
ez badira
ere. Zuk aipa-
tzen duzun




gure euskal gi-
zarte honetan era-
gin positiboa du ho-
rrek, gizartea irabaz-
le ateratzen da nire iri-
tziz. Nahiago nuke gure
gizarte okertu eta nahas-
tu honetan elkarrengana-
ko errespetua nagusituko
balitz: arazo guztiek lukete
irtenbidea.

IHINTZ

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1.-20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40
Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maria Agirre, Maider Egues. **Publikitateak:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egues. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

 ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Luis.

**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**



77 05 65

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

Memesa
79 42 22

J. M. Heriz
axuleiuk
Porcelanosa
Azuui
Pamese...
Otalora Lizentziatua
Tfnoa: 79 77 11 ARRASATE

•••••

**Uharkape dela
eta, argibideak**

Pasa den uztailaren 23an, ARRASATE PRESeko 12. orrialdean, «Uharkape eta epaitegiak» izenburupean argitaratuari buruz, non lur-sail batzuen bereizgo lizentzia aipatzen den, orduan (1984) udaletxeko hirigintza saileko lehendakaria zen Joxe Lasa Izuzkiza Jaunaren aldetik.

Azpian sinatzaile den Alvaro Arregi Otaudi, NAN zenbakia 72.559.522 (orduan

Arrasateko Udaletxeko Alkate), ondorengo argiketak egin beharrean aurkitzen naiz.

1.— Udaletxeko elkarlanean ibilitako lau urteetan, ez dudala inoiz zalantzan jarri Joxe Lasaren ohoretasun eta gestio lanetarako gaitasuna.

2.— 1983-1987 legegintza hasieran, udaletxean erabakiak hartzeko gai ziren organo kompetente bakarrak, honako hauek zirela.

- a) Plenoa.
- b) Batzorde Iraunkorra (gaur egungo Gobernu Batzordea).
- c) Alkatetza bera (dekretu

bidez).

3.— Azatza Auzoko lehendakariaren izenean eskatu izan zen 18 poligonoan VII. sektoreko bi sailen bereizketa, onetsia eta akordio mailara goratua izan zela, aho batez **Batzorde Iraunkorrean**, ekarririko dokumentuak eta udal zerbitzu teknikoaren informea ikusita.

4.— Aurreko puntuan aipatutakoaren egiaztasuna, udaletxeko akten liburuan konproba daitekeela, gehiago zehaztuz 1984. urtarrilaren 24ko batzorde iraunkorraren batzarrean hain zuzen.

ALVARO ARREGI OTAUDI

ARKOko Lantaldean aldaketak ditugu



**Jon Andueza, Iñigo Astigarra-
ga, Rosa Mondragon eta Goio
Aranaren** ordezkariak, honako bostekoa izango dugu aurrerantzean gure artean, asteroko zure aldizkari hau eta mon-

drauetarren telebista egiten: **Maria Agirre, Andoni Urzelai, Maider Egües, Txos Azurmendi eta Jon Aldanondo**. Zorte ona joan direnei eta ongietorria lantalde berriari!

ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE


HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

Zer moduz oporrak?




Kontxi Alvarez
Aita Menniko langilea
(35 urte)

Ondo, Hondarribin eta Canbrils-en egon gara. Hondarribin ez digu oso eguraldi ona egin, baina guretzat ondo.



Marzelino Castelo
Jubilatua
(71 urte)

Ondo, Mondrauen egon naiz, beti bezala, hemen ibiltzen gara gu. Eguraldi kaxkarr, eta jendea, berriz, beste urte batzutako antzera.



Juakina Axpe
Jubilatua
(82 urte)

Ondo, zer esango dizut, bada? Donostian egon gara, eta bestela herrixe zainketan.



Oscar Cerezo
Diseinatzailea
(24 urte)

Nahiko ondo. Pirineotan egon naiz, mendian. Lehen aldia nuen. Egunero ekaitza egiten zuen, baina bestela ondo. Perdidora eta beste ibilaldi batzuk ere egin ditugu.



Ander Perez de Arenaza
Ikaslea
(5 urte)

Ondo. Arrasaten egon naiz, Ondarroan, Bermeon... Euria egin du.



Amaia Arroyo
Ikaslea
(10 urte)

Valentzian, Culleran egon naiz, eta oso ondo. Aurten joan gara lehengo aldiz eta oso ondo pasa dut.



Manuel Baena
Gelmako langilea
(40 urte)

Nahiko izorratuta, hemen. Beste urte batzutan baino jende gehiago geratu da, krisi-gatik edo. Hemen egoteko, zenbat eta eguraldi txarragoa egin, hobeto.



Miriam Abasolo
Ikaslea
(20 urte)

Oso ondo, Peñiscolan egon naiz. Pare bat egun egin dizkigu txarra, baina bestela eguraldi ona. Hara joan naitzen lehen aldia izan da aurten.



- Estetika kabinetea
- Larruzko artikulua
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

.....

ELEKTRONIKA

ARTIKULUEN

SALMENTA

.....



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	71 44 52
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
Udalzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterongo liburategia	
Monterron	77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 3
Egunez: Corcuera, Musakola.
Gauetz: Guallar, San Antonio.

Larunbata 4
Egunez: Irizar, Erguin.
Gauetz: Mozos, Pedro Deunaren.

Igandea 5
Egunez: Ruiz, Maala.
Gauetz: Mozos, Pedro Deunaren.

Astelehena 6
Egunez: Morales, San Andres.
Gauetz: Puy, Barrenkale.

Astearte 7
Egunez: Corcuera, Musakola.
Gauetz: Guallar, San Antonio.

Asteazkena 8
Egunez: Irizar, Erguin.
Gauetz: Mozos, Pedro Deunaren.

Osteguna 9
Egunez: Ruiz, Maala.
Gauetz: Guallar, San Antonio.

3 OSTIRALA

ROCK KONTZERTUA

«Rabia» taldeak kontzertua eskeiniko du. Gaueko 12-etan. Elorrioko Kafe Ateneon.

URBINAKO JAIAK

Gauean BRIES taldeak dantzaldia eskeiniko du.

UAN LUIS GUERRA ETA LOS 4:40

kontzertua. Bilboko Vista Alegre zezen plazan.

4 LARUNBATA

BLUES KONTZERTUA

«Jesse James Band» taldearen musika ekitaldia. Gaueko 12-etan. Elorrioko Kafe Ateneon.

ZINEA

« Made In America »

URBINAKO JAIAK

MCD eta Baldin Bada taldeek kontzertua eskeiniko dute.

K2 ESPEDIZIOARI ONGI ETORRIA

Arratsaldeko 7etan, Murrukixoko lokalean. Bertsolari, txalapartari eta dantzariak egongo dira.


5 IGANDEA

MUSIKA

«Les Mecaniciens» taldearen kontzertua. Gaueko 12etan. Elorrioko Kafe Ateneon.

ZINEA

« Made In America »



UDAL EUSKALTEGIRAKO MATRIKULA

Udal Euskaltegian apuntatzeko matrikula epea, irailaren 1etik 17ra bitartean egongo da zabalik. Klaseak berriz irailaren 22arte ez dira hasiko. Gainera aukera desberdinak eskeintzen dituzte, hau da, alfabetatzea edo euskalduntzea. Kolektibo desberdinei zuzenduriko klaseak ere badaude eta, noski, helburu desberdinei begira ere antolatuta dituzte: EGA eta administrazioko perfilak (1. 2. 3. perfilak) eta azkenik hezkuntzako perfilak. Klaseak bi, hiru, lau edo bost ordutakoak izango dira. Apuntatzeko bulegorara, berau goizez 10etatik 1era eta arratsaldeko 3-etatik 7-retara egongo da zabalik. Beka sistema ere badago. Informazio gehiago nahi izanez gero, degin 797077 edo 797788 telefono zenbakietara.



RABIA TALDEAREN KONTZERTUA

«Rabia» taldeak rock kontzertua eskeiniko du astelehenean Elorrioko, gaueko 12etan, Elorrioko Kafe Ateneon.

6 ASTELEHENA**LUDOTEKA**

Ludotekak bere atea irekiko ditu. Jostailu berriak, lagun berriak egiteko aukera.

ZINEA

«Made In America»

MUSIKA

Tapia eta Leturiaren kontzertua. Gaueko 12etan. Elorrioko Kafe Ateneon.

IRAILEKO**UDALEKUTXOAK**

Txatxilipurdi taldeak antolatutako udalekuen hasiera. Ekintzak arratsaldez izango dira, 3etatik 6retara.

UMEZAINZAKO**BILERA**

1990-ean jaiotako umeen gurasoekin arratsaldeko 6etan eta besteekin 6:15tan. Bilera umezaintzaren San Josepeko ikastetxean izango da.

EL SALVADORREKO MUSIKA TALDEAREN KONTZERTUA


El Salvadorreko gatazka armatuan erbestean sorturikoa dugu Morazan taldea. Berauek Comunidad Segundo Monteseoak dira, eta orain Hego Euskal Herrian zehar dabiltzuzuzeneko zenbait emanaldi eskaintzen. Musika talde honek El Salvadorreko musika originala jorratzen du, eta hainbat abesti herri borrokaren zati bat dira. Kontzertua Monterron parkean izango da gaueko 10:30etan. Sarrera 300 PTA eta gazte txartelaz 200 PTA.

7 ASTEARTEA**ZINEA**

«Made In America»

PINTURA ERAKUSKETA

Irailaren 10-etik 26-rarte eta Iturriotz kalean dagoen Harresi aretoan, Cesar Cimiano», Txifi-ren» pintura erakusketa egongo da ikusgai. Astegunetan arratsaldeko 6etatik 8ak bitartean egongo da zabalik. Larunbat eta jaiegunetan goizez ere zabalduko da, eguerdiko 12etatik 2ak arte, eta arratsaldez astegunetako ordutegi bera mantenduko da.

**9 OSTEGUNA****MUSIKA EMANALDIA**

El Salvadorreko «Morazan»taldeak eskeinita. Monterron parkean, gaueko 10'30etan. Sarrera 300 PTA eta gazte txartelaz 200 PTA.

**IRAILEKO UDALEKUTXOAK 93**

AED-ek irailerako antolatu dituen udalekuei hasiera emango zaie astelehenean. Lehen txandak irailaren 6tik 17arteara izango dira, eta bigarrenak berriz 6tik 24ra. Udalekutxoak, datorren kurtsoan haurreskolako 3. maila eta O.H.O ko 1. eta 2. maila hasi behar dutenentzat antolatu dira. Izene-matea lehenbait lehen egin!

“Orain egun batzuk, Euskal Herrira, Arrasatera joateko eskatu zidan Manuel Campo Vidalek, Laneko Osasunari buruzko mahainguru batetan parte hartzera. Gasteiz pasa ondoren baso berdeetan zehar kantauri itsaso aldera eginez leku horretarako hurbildu ahala nituen sentsasio bikainak ezin dituzue imaginatu ere egin.

Mallorcako mendiak zirela pentsatu nuen une batez (...). Azkenaldian izan dudak pake sentsaziorik sakonena izan nuen Arrasaten. Españako beste lekuetara iristen zazkigun berriek eragiten duten inpresio kolektibo hori desagertu egin zen nire mundutik eta Euskadira ekarri ninduen, oso gertutik tratatu behar den herri batetara. Jende atsegin eta irekiak, adiskidekorrak eta biziak berez. Kirola maite dute eta praktikatu egiten dute. Mendetako nekazari-arima dute, aire zabalera, musikara, abestia, janera eta edanera emana. Etxearen eta ondo egindako lanaren maitaleak dira.

Arrasatera eraman ninduen eginkizuna, dieta eta nutrizioari buruzko galdera interesgarri eta interesatu pila batekin amaitu zen”.

Bartolomé Beltran medikua. **SUPLEMENTO**

“Kooperatiben lehenengo akatsa, nahikoa grabea luzarora, horixe litzateke: kooperatibismoak berak faltseatzea bere burua, hau da, enpresako soluzio soiltan geratzea, bizitza sozial guztia animatzeko filosofia bihurtu gabe. Edo bere efikazian, produkzioko arrakastan eta holakoetan gehiegi fijaszea, Arizmendiari eta Supertaylor edo Supertajanov bat izan bazenute bezala.

Idea eta idealei denborarekin beti jazoten zaiena da, makineriak harrapatzen dituela. Harrapatu, zukutu eta mas-trakatu eguneroko martxan, azkenean izpiritu ttantta bat utzi gabe. Profektuak agortzeko arriskua du orduan. Behar bada sintomatikoa da: badirudi kooperatibismo enpresarialak bere garapidean bizkor bizkor jarraitu duela krisian ere, berritzen, adaptatzen; baina Don Jose Maria hil zenez gero, ideia berririk eta proiektu berririk, sentido sozial batean, ez dela ikusten”.

Joxe Azurmendi

lankide

Lanera itzultzeko sindromea zer izaten da?

Gai zaila da hau, pertsona bakoitzak erreakzio berezkoa izaten du eta. Orokorrean, kostatu egiten da oporretatik itzultzea. Erritmo aldaketa izaten da, eta jende gehienak lan monotonoa daukanez, zaila da zortzi ordu gauza bera egiten emateari berriro aurre egitea berriro, egoera zaila da.

Adaptatzeko egun batzuk izaten ditugu normalean, tristura eta haserre egunak izaten dira. Laneari hasi beharreko egunaren bezperan ere tipikoa izaten da lorik ondo ez egitea. Baina, beno, inportantziarik gabeko gauzak direla uste dut. Hori bai, pertsona batzuk aurretik ere ahulago egoten dira psikologikoki, eta horregatik edozein gauza izan daiteke aitzakia depresio handiago batean sartzeko. Baina hori, zorionez, oso arraroa da, ez da normala. Beste batzuk, ordea, gogoz itzultzen dira lanera, erritmoa aldatzeko, lan aberasgarria daukatelako edo gustatzen zaielako. Adaptazio egun batzuen ondoren, ondo moldatzen dira hauek.

Bestalde, lanera itzultzea, eguneroko estresera itzultzea da. Normalean ez dakigu nola aurre egin behar diogun estresari, bizitzaren tentsioei, eta uste dut ona izango litzatekeela estresari aurre egiteko tresnak erabiltzea. Estres egoera batean, ez da lana izaten arazo bakarra, eguneroko bizimodua izaten da, buruan izaten ditugun arazoak, umeen eskola dela edo mila gauza direla, eguneroko bizitzaren erritmoa. Horregatik, ona izango litzateke denontzat estresa menderatzeko tresnak ezagutzea, egon badaude eta.



Alfonso Tovar
Fagor-eko zerbitzu medikoen koordinatzailea



HIZKUNTZAK-IDIOMAS

- Umeentzako klaseak
- H.E.O.ko azterketarako prestatzeko klaseak
- Hizkuntzak ikasteko klaseak orokorrean

**93-94 IKASTURTERAKO MATRIKULA
IREKITA DAGO !**

Hurbil zaitez gure bulegoetara

ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54
OÑATI: Olakua, 14 Tfnoa: 71 60 00



Salmenta eta zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

UGARTE

**Industri
hornidurak**

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

Hiru gazte hilda

Leihotik behera jausita, Arrasateko bi gazte hil dira abuztuan, eta beste bat trafiko istripu batean hil da. Birjinia Ruidiaz, Loramendi kaleko etxe bateko 13. solairutik jausi eta hil zen abuztuaren 9an, astelehenez. 23 urte zituen Birjinia Ruidiazek. Goizeko 8.30etan gertatu zen istripua, eta berehalakoa izan zen heriotza. Egun batzuk geroago, Belen Bragado 20 urteko neska Gasteizko Santiago ospitalean 4. solairutik erorita hil zen. Abuztu hasieran, Juan Pedro Tamame «Txiki», 33 urteko arrasatearra, motorrarekin izandako istripu batean hil zen Burgoseko errepide batean.

Txeke faltsuekin lapurretan

Arrasateko banketxe batean lapurtutako txekeekin dirua atera zuen bergarar bat atxilotu zuen Ertzaintzak abuztuaren 23an. Joseba Gurutz S.A. bergararrak lapurretan egin zuen abuztuaren 2an, astelehenez, Bergarako enpresa batean: dirua, txekeak eta Nortasun



Epeleko errepideko obrak

Arrasateko irteeran, Roneoko poligonoaren parean, errepidearen trazaketa aldatu da metro batzuetan abuztuan, argazkiko kartel *elebidun* bikainak zehazten duen bezala. Puntu horretan, Kanpazarako errepideruntz irteeraren duen Epeleko errepide berria lotuko zaio karreterari, San Prudentzio eta Elorrio arteko lotura hobetzeko proiektuaren barne. Errepide berri hau datorren urteko hasierarako egongo da amaituta. Tramo berriari esker, Kanpazartik Bergararanko bidean Arrasateko herrigunea ebitatutako da. Errepide berriak Epeleko bailara zeharkatzen du, eta Kanpazarko bidearekin bat egiten du Sara baserriaren parean, hiruzpalau kilometroko bidea eginda. Bide honek bigarren fase bat izango du, Kanpazarko azpitik Elorrioko Igurixa auzora joango den tunelarena.

Agiri batzuk ostu zituen. Txekeekin diru gehiago (700.000 PTA) lortu zuen Eibarko eta Arrasateko bi banketxetan, lapurtutako NAN batean (1903an jaiotako pertsona batena zen) bere argazkia jarriarik.

Taberna batean atxilotetak

Abuztuaren 16an, Etxerat tabernako Garikoitz Uribeetxebarria zerbitzaria eta Amaia Garcia sukaldaria atxilotu zituen Ertzaintzak ordu erdiz, eta kargurik

JAIOTZAK

- Irati Errasti Carmona, uztailearen 20an.
- Leire Delgado Arriola, 5ean.
- Marta Lizarralde Gil, abuztuaren 1ean.
- Maialen Zabaleta Isasmendi, 5ean.
- Alazne Gutierrez Gallastegi, 9an.
- Jon Arana Alonso, 8an.
- Nerea Gonzalez Rodriguez, 12an.
- Sara Nuñez Alonso de Armiño, 13an.
- Zuriñe Mugika Iturbe, 19an.
- David Tudela Alvarez, 20an.
- Ander Iñurrieta Ibarrondo, 18an.
- Ander Arizabala Roa, 19an.

EZKONTZAK

- Jabier Retegi Albizua & M. Fylvie Schiettekatte Dutaui. Uztailearen 23an. Elizaz.
- Eusebio Gonzalez Martin & M^a Teresa Conde Gonzalez. 31an. Elizaz.
- Pedro Manuel Cadiñanos Cortazar & M^a Rosario Garcia Irigoien. Abuztuaren 1ean. Elizaz.
- Arturo Rodriguez Fernandez & M^a de los Angeles Rodriguez Motrel. 4ean. Elizaz.

HILDAKOAK

- Jose Alberdi Etxezarreta. Abuztuaren 3an. 77 urte.
- Segundo Martinez de Iturrarte Lopez de Arroyabe. 3an. 90 urte.
- Blas Franzisko Imaz Basterrika. 4ean. 72 urte.
- Donata Gallastegi Azpitarte. 3an. 90 urte.
- Luis Rodriguez Rodriguez. 6an. 86 urte.
- Virginia Ruizdiaz Abarrategi. 9an. 24 urte.
- Felipa Etxebarria Altuna. 12an. 88 urte.
- Clara Abarrategi Arkauz. 13an. 88 urte.
- Alberto Arregi Egidazu. 17an. 74 urte.
- Vicenta Muñoz Valor. 24ean. 82 urte.
- Jose M^a Jauregiako Arrizabalaga. 29an. 88 urte.

LORATEGI
Iturriotz, 7
ARRASATE
Tefnoa: 79 04 67

OSORIK PUB
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

Monte taberna
Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAL, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

FELIPE MADINA
ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

Zuri Garbiketak
San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

gabe libre utzi zituzten ondoren. Ertzainak tabernara kartel batzuk kentzera joan zirenean gertatu ziren atxiloketak. Beste taberna batzuetan ere kendu izan dituzte kartelak ertzainek geroztik.

Leherkariak Aretxabaletan

Ertzaintzak 46 kilo leherkari aurkitu zituen Aretxabaletan abuztuaren 23an, astelehenez. Aretxabaleta inguruan, sasi-arteke zulo batean ezkutatutako plastikozko bi ontzitan zegoen leherkaria, Ertzaintzak biharamunean jakitera eman zuenez. Ertzaintzaren arabera, susmoak izan zituen bizilagun batek Arrasateko Ertzaintzaren komisaldegira dei egin eta gero topatu zituzten leherkari bidoiak. Guztira 46 kilo zeuden, goma-2 leherkarikoak, egoera onean eta ezta.

Lehen ehorzketa San Kristobalen

San Kristobalگو kanposantu berrian lehenbiziko ehorzketa abuztu honetan izan zen, 9an. Maria Cristina Beitia Azpe, bezperan gaisotasunez hil zena, bertako familia-panteoi batean ehortzi baitzuten. Kanposantuko lanak amaituta daude, eta ehorzketak egiteko bezala dagoen arren, ez da ofizialki inauguratuko Domusantu eguna arte, azaroaren 1a

arte. Geroztik, ehorzketa guztiak San Kristobalen egingo dira, ez orain arte erabili izan den Aldaikoan.

Autoa erosten iruzurra

Bi pertsona atxilotu zituen Ertzaintzak abuztuaren, uztailean Arrasateko auto kontzesionario batean iruzurra egiteagatik. Atxilotuak 44 urteko Jose Antonio M.F. gasteiztarra eta 22 urteko Aitor Z.T. arrasatearra ziren, eta Gasteizen atzeman zituzten. Antza denez, balio bako txeke baten bitartez, bigarren eskuko bi auto erosi zituzten bi atxilotuek Arrasaten, milioi bat PTAKo iruzurra eginez.

Etxeak behera

Abuztu hasieran bi etxe behera bota zituzten, Telefonicako egoitza zaharra bata, eta Erdiko Kaleko 44. zenbakia bestea. Lehenaren tokian ondoko Biteriko aparkalekua handituko da, beste 25 autorentzako lekuarekin, eta bide batez Garibai etxearen alboko alde errekuaratu egin ahal izango da.

Musika Hamabostaldia irekitzen

Goikobalu abesbatzak Donostiako 51. Musika Hamabostaldia ireki zuen arrakasta handiz eta kritika onekin abuztuaren 9an, San Ignacio abesbatzare-

kin eta Donostiako Orfeoi-arekin batera. Ratxmaninov-en «Bezperak» kantatu zituzten Arrasateko abesbatzekoek, Jose Antonio Saiz Orfeoi Donostiarraren zuzendararen gidaritzapean.

Uharkapeko salaketak

Uharkapeko obren geldiunearen polemika luzean, Uharkape elkar-teak udaletxeko arduradunen baten kontra egindako salaketan ondoren, erantzuna heldu zen. Batetik, Alvaro Arregi alkate izandakoak garai bateko Hirigintza arduradun. izandako Joxe Lasa zinegotziaren izen ona eta portaera erreibindikatu ditu. Bestetik, Azatza Auzoko bizilagunek ere agiri bat kaleratu zuten, esanez «kalumnia eta kulpa soziala» hedatu nahi dituztela batzuek, epaitegietatik kanpo «justizia paraleloa» egin nahirik.

Batzokiari eraso

Arrasateko Batzokiak eraso bat jasan zuen abuztuaren 28an, larunbatez. Pintura bota zuten ezezagun batzuek Batzokiaren atera eta ondoren sua eman zioten. Arrasateko EAJk agiri bat kaleratu zuen ekintza hauek egiten dituzten «taldeen jarrera eta laguntzen dietenena» salatuz. Iraileko lehen Gobernu Batzordera eramango du auzia EAJk, iragarri duenez.

USTEAK USTE

ONGI ETORRI

Tontorreko gloria irabazi barik bueltatzen dira mendizaleak. Bizirik datoz, eta onik, eta nahikoa iruditzen zait. Zorionak eta ongi etorri emateko nahikoa. Akaso atsekabetuta bueltatuko dira: gaina lortu izan balute, harro eta ezin pozago izango genituzke, heroien gisa. Gloria, heroizitatea: berba antzuak. Ez diot meriturik ikusten bizitza jokatzeari, eta ez naiz inoiz igoko 8.000 metroko mendi batera, ez dut burua zubi batetik botako soka batetik zintzilik... Batzuek pentsatuko dute bizimodua aspergarria dela oxigeno barik egoteko zirrara hori sentitu barik; arriskua dastatzeke eta dastatzeko gogorik barik bizitzeari tristea iritziko diote. Oraindik orain, puenting egiteko intentziorik ez izateari koldarkeria esango dionik ibiliko da hor suelto. Pena emango diot norbaiti, akaso. Niri heroizitateak ematen dit pena: euskaldun morroskoaren estereotipoak, heroien matxismo hormonalak bizirik segitzen duela ikusteak, jantzi berriekin estalita. Baina, dena den, ongi etorri eta, bihotzez, zorionak.

LUIS FERNANDEZ



BIONA

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE




BLUSAK OSAGARRIAK POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

DENDARABA Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ



Egun hauetan ari dira amaitzen Escatu edifizioko obrak, San Andres auzoan.

Escatu-ko negozio berriak aurki hasiko dira martxan

San Andres auzoko Escatu eraikuntza-zen berriztapena ia amaituta dagoela, antzerako beste proiektu bat sustatuko da Arrasaten, Roneoko almatzen zaharrak (Eroskiren ondoan), berrizteko eta pabilioiak eta bulegoak hartzeko egokituko baita.

Escatuko lanen bidez, lehengo enpresa zaharraren lantegia erabat berritu da, eta hainbat negozioren egoitza berria izango da. Beheko solairuan, supermerkatu bat egongo da, janari, arraindegi, txerrikitegi eta drogeria zerbitzuekin, eta honi lotuta erretegi erako jatetxe bat, 800 metro karratu eginez. Horrez gain, 200-300 metro arteko hainbat etxe kokatuko dira bertan, besteak beste, elektragaitxe bat, margoak, eraikuntza materialak, haltzari denda bat, iturgintza negozio bat eta auto konponketa.

Goiko solairuetan, batetik Bastida akademia kokatuko da 800 metro karratutan, eta beste 800 metro salgai jarri dira bulegotan banatzeko. Aldi berean, Extremadurako etor-

kinen 'Corazon de Encina' elkarteak ere bertara trasladatuko du egoitza. Escatuko hornikuntza aparkalekuekin osatuko da: 47 garaje itxi egongo dira 1. solairuan, eta 108 aparkaleku teilatuan. Lanak amaitzen ari dira dagoeneko, eta irailean bertan irekiko dira Escatu edifizioko lehen negozioak.

Ekimen berria

Bestetik, antzerako beste ekimen bat sustatzen ari dira Arrasaten, Roneoko almatzen zaharretan, herriaren irteeran, Musakola auzoan. Orain ezertarako erabiltzen ez diren almatzen horietan 5.000 metro karratu daude banatzeko plantan, eta beste 1.000 metro karratu egongo dira bulegoetarako 1. solairu batean.

Aldi berean, Eroskik ondoan daukan aparkalekua handitu egingo da obra horietan. Bigarren fasea ere izango du Roneoko obra honek, orain hutsik dauden pabilioiez gain, pabilio berriak ere eraikiko baitira.

Euskara frogak lanpostuetarako

Arrasateko Udalak aurrera jarraitzen du 93ko Enplegu Eskaintzan kaletaratuako lanpostuak betetzeko azterketa eta frogekin. Froga horien barruan, euskarazko azterketari dagokionez, irailaren 15etik aurrera burutuko dira, denak ere goizeko 10etan, honako egun eta lekuetan lanpostu bakoitzerako:

Euskara teknikari lanposturako izena emanik dutenek irailaren 15ean Udaletxean. Gazte informazioaile eta Ingurugiro Eskolako teknikari posturako irailaren 16an Udal Euskaltegian. Administrazio laguntzaile lanposturako irailaren 17an Udal Euskaltegian eta hilaren 22an eta udaletxean beste lanpostu hauetarako euskara azterketak: emakumearen berdintasunerako agentea, hirigintzako teknikaria, prebentzio eta intersizio sozialeko teknikaria.

Udala berriro martxan

Arrasateko Udaleko zinegotziak datorren asteko Gobernu Batzordearekin murgilduko dira berriz ere urtean zeharreko dinamikara, udako oporren ostean. Hala ere, udal bulegoetako ordutegia goizekoa izango da irailaren 20a bitartean, goizeko 10etatik 2ak arte egongo dira zabalik bulegoak jendearentzat.

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduktzioa
Offseta
Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62


Basabe jatetxea

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



Euskalanek lantegi ezberdinetan

Lan munduan euskara sustatzeko ahalegin gehiago

AEDko Euskalan Taldeak lantegietako jendea euskara ikasten edo hobetzen has dadin matrikula kanpaina bat ireki du. 'Alfabetatu zaitez!' edo 'El Euskara no tiene fronteras... no se las pongamos nosotros. Lemapean, lantegi munduan euskararen erabilera areagotzeko urrats bat gehiago besterik ez da kanpaina hau, Arrasateko bi Euskalgiekin elkarlanean burutu nahi dena. Aurten, gainera, ELA, LAB eta CCOO sindikatuek babesten dute kanpaina.

Azken batean, euskara esigentziarik ez dagoen lanpostuetan ere kontzientziazioa sartzea da helburua, eta klaseetarako taldeak

lantegietan bertan sortzen ahaleginduko dira Euskalanetik.

Euskalanek Arrasateko lan munduan euskalduntzeak duen eraginaz egindako azterketa baten ondorio gisa, egiten den ahalegina merkatal eta industria mundutik kanpo geratzen ari dela ikusi dute.

Gainera, apurka apurka mundu hori euskalduntzen ez joateak beste arlo batzuetan egindako lana pikutara bidaltzea esan nahi izango luke AEDren ustetan. Gaur egun ikasketak euskaraz egiten dituzten gazteek lan munduan euskaraz murgiltzeko aukerarik ez badute, adibidez.

Auzolandegiaren arrakasta

AEDko auzolandegiek amaitu dituzte dagoeneko Lapurdiko Kanbo herrian dagoen Xalbador ikastegiko zenbait ikasgelen egokitze lanak. Guztira 55 gaztek hartu dute parte, hiru txandatan banaturik, AEDk iparraldean antolatutako auzolandegietan. Iparraldeko jendearekin harremanak estutzeko aukera polita ere izan dute auzolandegian.

Max Center eskandalua

Max Center eskandaluko epaiketak *impasse* batean segitzen du. Abuztuan izandako deklarazioetan, auzia azaleratu zuen kazetariak, Barakaldako eskandaluaren berri gutun anonimo baten bidez jakin zuela adierazi zuen. Horren harira, txantaia saiakeran ustez inplikaturako EAJko zinegotzia ohiak, Juan Maria Mendizabalek, kazetari horrek norbait estaltzen zuela adierazi zuen, bera errugabea zela, eta guzti honetan «onurarik atera duen bakarra» PSOE izan dela.

• ARTEA •
Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, lzpiluak,
Margoak
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

Begoña
lurrindegia
Drogeria
Jostailuak
Opariak
Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

ARTOLA
KOMERTZIALA
Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

JOSTEKO
OIHALAK
Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

ZUBIZARRETA
TAILERRAK
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

beinke

ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

IXOKO
TABERNA
Gure berezitasunak
pintxo eta
mokau gozoak



Santa Agedako eritetxearen eta auzoaren panoramika.

Inbertsio garrantzitsuak Santa Ageda eritetxean

Datozen bost urteetan zehar, Santa Agedako ospitale psikiatrikoan 2.000 milioi PTAko inbertsioa egingo da, bost eraikuntza berri egiteko eta gaisoentzako zerbitzua hobetzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunek Aita Menni ospitale psikiatrikoa bisitatu zuten abuztuan. Jose Mari Loiti zinegotziarekin, Antton Arbulu Diputazioko hirigintza diputatua eta Maite Zelaia Hirigintzako arkitektoa izan ziren eritetxean, egin behar diren obrak aztertzen. Aldi berean, Diputazioak euskal ondare kulturalaren parte izendatu du Santa Ageda, eraikuntzak dituen

balio monumental eta historikoengatik.

Inbertsioak bost urtetan zehar luzatuko dira, eta lehen lanak martxan daude jadanik, bi eraikuntza dira, administraziorako bata eta lehen harrerak egiteko 60 gaisorentzako bezalakoa bestea. Ondoren, psikogeriatria sailerako bi pabilioi berri eraikiko dira, 140 gaisorentzat, eta bertako komunitate eta personal medikoarentzako eraikuntza ere egingo da.

Gaisoak paseatzeko dituzten lorategi eta parkeen zabalera ere handitu egingo da, oraingo 25.000 metro karratuetatik 55.000 metro karratu egin arte.

Umezaintzaren oharra

Umezaintza haurreskola-tko 93-94 ikasturtearen hasiera honako egun hauetan izango da ikastetxe horretan: iaz ibilitako umeak irailaren 7an hasiko dira, astearte. Berri guztiak, aldiz, ez dira irailaren 9ra arte hasiko. Honez gain, guraso berriei bilera batera dei egiten die Umezaintzatik: 90ean jaiotako umeen gurasoekin 6an, astelehenean, arratsaldeko 6etan izango da bilera. Beste guztien gurasoekin berriz, egun berean, egun berean baina arratsaldeko 6.15etan.

Uribarriko jaietako zozketa

Abuztu amaieran izan ziren Uribarri baserri auzoko San Bartolome jaietako zozketan, honako zenbakie suertatu zitzaizkien sariak: 1. saria, bildotza, 380 zki.arentzat; 2. saria, urdaiazpikoa, 096 zki.arentzat, eta 3. saria, sorpresatxo bat, 293. zki.arentzat. Sarituak Uribarriko auzo alkatetzatik pasa sariak jasotzera.

"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

mokasin

Zapatak eta
osagarriak

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71



HAURTXOA

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

Azkoagan...

DUKIENA jatetxea

Tfnoa: (945) 44 50 86 ARAMAIO



Gorka Galdos, Iñaki Abasolo, ikusi ondoren, Ipar eta era honetan argazki hau Iñigo «Guti» eta «Pitu» Irlandaezagutzera abiatu jaio zen. Gero, noski, Ginnes Madinabeitia Eskozia aldera ziren. Bertan ezagunekin batzuk edatera joan ziren joan ziren eta bazterrok ondo elkartzeko aukera izan zuten guztiak.



Esther Korta eta Javi Sanchez, Badajozeko Hornachos herrira hurbildu ziren. Zertara? Bada, bertako auzo-landegi batetan anima-

liekin lan egitera. Goizetan lan egin arren zoragarri ibili dira eta gainera atzerriko jende ugari ere ezagutu ahal izan dute.



Hiru arrasatear gazte hauek, Suitza eta Alemaniako parajeetan zeharibili dira bertako laku eta mendiez gozatzuz. Bizikleta batzuk alokatu eta Bavierako

Inmestald herria zokorik zoko bisitatu zuten. «Teri» Cid, Karmele Azpiazu eta Luis Mari Uribesalgo ditugu bidaia zoragarri honetako protagoinistak.

**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**



Otalora z/g Tfnoa: 79 20 50 ARRASATE



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 beheha Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

IZEN PROPIOAK



Mendi puntak txurituta daudela antzematen den arren, eguraldi onaz gozatu ahal izan dute Noruegara joan diren arrasatear hauek. Imanol Exposito eta Itziar Sologaietara abioiz

joan ziren bertaraino eta gero autobusez hainbat bazter bisitatu. Orokorrean asko gustatu zaie eta gainera bertako jendea oso jatorra omen da.



Herriko ohituren berri ematea helburu zuen auzolandegi bat antolatu zutela Murtziako Bullas herrian eta, bertaraino

hurbildu ziren Ane Bellido eta Jurdano Jausoro. Goizetan, herri horretan ehungintzan nola egiten duten

ikasten zuten eta arratsaldeak berriz inguruak ezagutzeko aprobetxatzen zituzten.

● **Ivan Sanchez**, 16 urteko arrasatearra Quetzal erruta egiteko aukeratua izan da. Dagoeneko Honduras, Guatemala eta Mexikoko basoetan barrena dabil, bertako kultura eta ohiturak ezagutuaz. Berrogeitabederatzi egun iraugo ditu bidaiak eta urriaren 10-ean bueltan izango dugu arrasatearra.


● **Jon Andueza**, 27 urte, Irailaren 22-tik aurrera Hor Dago Koska! izeneko lehiaketa berria aurkezten ikusiko du ETB-1-ean.

● **Anne Igartiburuk**, 24 urte, Donostiako zinemaldiko zabaltze eta bukaera ekitaldiak aurkeztuko ditu. Annek Ikerlanen lan egiten du harreman publikotan, eta ATB-eko Bakarka saioaren aurkezlea ere bada.

M
Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkaia, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

IBARRA
Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

beatriz


oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



Oihana

ARTE ETA APAINKETA

Birmoldaketak • Proiektuak • Brocante

Arrasate Pasealekua, 8 ARRASATE Tfnoa: 77 14 56



ARRASATEKO UDALA

EUSKARA IKASLEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeak urtero bezala dirulaguntzak eskaintzen dizkie udako ikastaro trinkoetan euskara ikasten aritu diren arrasatearrei.

Eskaerak irailaren 17a baino lehen aurkeztu behar dira.
Informazio gehiago nahi izanez gero,
jo Euskara Zerbitzura.

● M^a Felicitas Jaime

Lesbianismoaz

Argentinakoa izatez, Maria Felicitas orain dela 13 urte etorri zen Madriler. Lesbianismoa aztertuz, "Chris and Chis" eta "Pasiones" liburuak idatzi ditu, eta "Fablastre" izeneko denbora gutxi barru kaleratuko da.

— Nola dago gaur egungo gizartean lesbiana eta homosexualen egoera?

— Nolabait aldatuz doa, bai errespeto aldetik behintzat. Lehen lesbiana izatea lotsatzeko arrazoia zen; gaur egun, berriz, kuriositatea sortzen du baina ez mesprezua, era batean oraindik ere errefusapena mantendu egiten da, baina maila txiki batean, ez orain dela urte batzuk bezala. Lesbianen kasuan, zerbait desberdina da, beti egon baikara mugimendu bezala formatuta, feminismoaren bidez elkarlotuta. Orain feminismoa utzi eta lesbianen mugimendua sortzen ari gara. Baina, gizarte mailan ikusi dugun aldaketa, gizarteak berak jasan duen aurrerapenaren emaitza da. Komunikabideek, adibidez, lehen ez zituzten aztertu ere egiten horrelako gaiak, gaur egun, edozein mediotan ikus daitezke erreportai edo programa bereziak gai hauek aztertuz. Guzti honek bere eragina du gizartean, eta guk igarri dugu ideologia aldaketa.

— Zergatik etorri zinen Madriler eta zein da gaurko egoera Espainian?

— Argentinan talde berezietan militatu nuen, baina Madrilen, ez naiz antzerako

taldetan sartu, nire ustez hemengo taldeen egoera zatituta dago arrazoi politikoengatik. Momentu honetan, deitzen didaten tokietara joan eta hitzaldiak ematen ditut, hori da nik jarraitzen dudana militantzia. Horretaz gain, liburu bat ere idatzi nuen gaia sakonki tratatuz eta hori ere aportazioa da mugimenduentzat.

— Lesbianismoa eta feminismoa elkarlotuta doaz?

— Teorian beharbada lotuta doaz, baina errealitatean ez. Esate baterako, badira feminista batzuk, lesbianismoarekin erlazionatuta daudenak baina, orokorrean ez, ez dute zerikusirik eta kasu askotan, gainera, kontrajarri egiten dira.

— Zenbat liburu idatzi duzu?

— Lehena eta beharbada arrakasta gehien izan duena, "Chris and Chris" da. Liburu honetan bi emakumeren amodiozko istorioa kontatzen da, hizkuntza erraza erabali dut eta lesbianen mundua deskribatzen da.

— Homosexuala, jaiola gizarteak bultzatuta bihurtzen da?

— Nire ustez homosexua-



litatea bakoitzak aukeratzen duen opzioa da. Askotan entzun izan dut, homosexualok, geneak aldatuta ditugula eta horrelako gauzek, asko harritzen naute. Nik, pertsonalki ez ditut onartzen, nire organismoko eta nire gorputzeko geneak aldatuta edo aldrebes daudela esaten duten teoriak. Nik ez dut uste gizarteak bultzatu nauenik lesbiana izatera, behintzat. Jende askok pentsatuko du: "koittaua, gaisoa da" eta niretzat oso inportantea da garbi uztea nire aukera izan dela, norberak aukeratutako opzioa.

— Ezagutzen duzu Euskal Herriko egoera?

— Beno, orain ari naiz informatzen. Dena dela, nire

ustez nahiko berdintsua da. Hori bai, militante diren emakume kopurua oso desberdina da, beste mundu bat da. Emakume euskaldunek izugarrizko indarra igortzen digute besteoi eta Emakumeen Asanblada eta Egizian ere indar garrantzitsua dira.

— Lege aldetiko diskriminazioa, zer?

— Bai, bikote homosexualak, emakumezkoak zein gizonezkoek, ez dituzte beste edozeinen eskubide zibil berdinak. Gure eskaera inportanteena horixe da: gure bikoteak, bikote heterosexual batek dituen eskubide berak izatea. Horregatik, bai, argi dago, legearen aurrean diskriminazioa dago.

● **"Legearen aurrean, bikote homosexualak, heterosexualak dituzten eskubide berak izatea eskatzen dugu."**

Deba Garaiko elkarte berria

Ondare historikoa

babesteko ekimena

Luis Fernandez

Deba Garaiko ondare kulturala zaintzeko elkarte bat sortzeko urratsak eman ditu eskualdeko herritar talde batek. Urtean zehar, zenbait bilerak egin ondoren, irailaren 24rako lehen batzar orokorrerako deialdia egin dute. Makina bat eraso jasan arren, oraindik aberatsa den ondare historiko horri eusteko gogoak animatzen ditu elkarte honen sustatzaileak.

Oraingoz, Bergara, Oñati, Eskoriatza eta Gatzagako zenbait lagun bildu dira. Arrasate, Aretxabaleta eta Antzuolako jendearekin ere hitz egin dute, eta aurrerago Elgeta eta Aramaiora zabaltzea buruan daukate. ARRASATEPRES-Sek bultzatzaile hauetariko birekin hitz egin du, Bergarako UNED Unibertsitateko Jerardo Elortza eta Juan Madariaga irakasle oñatiarrekin.

Oñati da, Deba Garaiko herrien artean, galtzeko gehien duen herria, bertan gordetzen delako antigoaleko ondarearen aztarna gehien. Elortza, Madariaga eta beste batzuek, arriskuan zeuden hainbat monumentu eta etxe ikusirik, Oñatiko inbentario monumentalak egin zuten. Hura amaitu zenetik, bi urtetan dagoeneko han azaltzen ziren monumentuetarik ba-

tzuk desagertu egin direla ikusi ondoren, kezka bere hartan dirau, eta horrela gorpuztu zen, pixkanaka, elkarte sendoa bat egiteko ideia.

Ondarea babesteko elkarte honek ez du oraingoz izenik: irailaren 24ko batzarrean aukeratuko da bat, baina ideia bat badute sustatzaileek: Kapiroio Elkarteak, etxegintzan erabiltzen den elementu arkitektoniko batetik izena hartu-

rik. Hiru helburu nagusi izango ditu Elkarteak: ikerketa, babes legala eta salaketa. Eta Elkartearen esparrua Deba Garaiko ondare artistiko, monumental eta historikoa da batez ere, alde etnografikoa eta bibliografikoa ahaztu barik. "Gauza larregi igoal, baina arriskuan daudenak", Juan Madariagak azaltzen digunez.

Kaleratu duten agiri batean esplikatzeko dutenez, iker-

ketaz gain, "inguruko kultura ondarea ezagutzera ematea" dute helburu. Ekimen horretan, badihardu apur bat Jerardo Elortzak, Oñatiko Kontzejupetik aldezkarian 'Ondaria zaindu guran' atala idazten du eta. "Jendea sentsibilizatzeko, ondarea ikertu eta ezagutu egin behar dugu lehenengo; gero informazioa zabaldu eta hedatu, eskoletan sentsibilizatu eta abar", ko-



Oñatiko etxe zahar bat, zaindu nahi denaren adibide.

H


iru helburu nagusi izango ditu Elkarteak: ondarea ikertzea, legearekin babestea eta arrisku eta erasoak salatzea.

mentatzen digu Elortzak.

LEGE-BABESA

Babes legalaren arloa, instituzioei presio egitean datza, dagokion erakundeak, ahal duelarik, legeaz babestu dezan elemento edo monumentu jakin bat. Alor honetan asko aurreratu da garai batetik hona, baina babes legalari kasu gehiegi egiten ez diotenak asko dira. Adibidez, 1985ean, Oñatiko Zubillaga auzoko ola zaharra behera bota zenean, haren balioaz kezkatutako oñatiar batzuk azaldu ziren obretara. Ondorioa, ola azkarrago bota zutela izan zen, oztopo instituzionalak ebitatzeko. Beraz, ondarearen defentsaren auzi honetan, arduraz guztia ez da erakundeena izaten: partikularrek ere zer esan handia daukate. Askotan, ezjakintza hutsagatik edo koordinazio faltagatik altxor handiak galtzen dira. Partikular batek etxea berritzen duenean, inork ezer esaten ez badio Erdi-Aroko elementuak ere deuseztatuko ditu konturatu barik akaso, baina norbaitek ohar ematen badio, ez zaio gehiegi kostako monumentu hori salbatzea (aldizkariko azalean azaltzen den berriztatutako etxeko leiho gotikoa horrela salbatu zen).

Salaketaren alorra ere beharrezkoa da, protesta barik barrabaskeriak ugaltu egiten baitira. Elkarteak eratu bezain laster buruan daukaten salaketa bat, Deba Bailarako zubi zaharren deuseztapena kritikatzeko da. Uraundiak ebiltatzeko planen barruan, ia zubi historiko zahar guztiak behera botatzeko erabakia hartua daukate erakundeek, eta hau onartezina iruditzen zaie Kapiroio Elkartekoei. Obra publiko handien arazoa ere gainean dago: Maltzaga-Urbina autopista egin behar dela edo Euskal Y trenbidearen trazaraketa dela eta, horien ondorioz elementu ugari gal dai-



Juan Madariaga eta Jerardo Elortza, UNEDeko irakasle eta Elkarte berriaren sustatzaile.

tezke.

Dena den, Elkartearen bidea ez da enfrentamendu hutsa bilatzea. "Gure asmoa erakundeekin kolaborazioa lortzea da", azaltzen digu Jerardo Elortzak. "Erakundeek dirua eta planak dauzkate, eta gure asmoa ez da dena salatzea. Askotan ideia zeharo diferenteak izango ditugu, baina beste askotan adostasuna egongo da, eta laguntza eskainiko diogu elkarri".

ERAKUNDEEN JARRERA ALDAKETA

Erakundeen aldetik, nolabaiteko kezka piztu dela uste

dute Kapiroioek. "Beren estrategia aldatu egin da, auzi eztabaidagarrietan aldez aurretik iritziak eskatzen hasi dira". Horren adibide izango dira, Maltzaga-Urbina autopistaren inguruan sortu nahi dituzten NIP edo herritarren Gune Partehartzaileak. Hone-lako inizatibak dagoeneko martxan jarri izan dira Gipuzkoan, Idiazabalen futbolzelaia eta Astigarragan kiroldegia bat egiteko orduan.

NIP hauen ideia, beste gauza askorena bezala, Europatik dator. Alemanian asko garatu izan dira, baina kontuan hartzekoa da Europa par-

tean ondarearen aldeko elkarte herritarrek ere tradizio luzea dutela. Alemanian bertan, diru iturri ugari garatu dituzte elkarte hauek, eta kasu askotan arriskuan dauden monumentuak erosi egiten dituzte, horrela babestu ahal izateko. Ingalaterran ere, National Trust izeneko elkarteak, irlaren kostaldea hirigintza basatitik babestu ahal izateko, apurka apurka kostaldearen erdia inguru erosi egin du. Europako mailako erakunde indartsua bihurtzea zaila izango zaio Deba Garaiko Elkarte honi, baina oraingoz gogoz hasten dira.

Parte hartzeko dei zabala

Elkarte berriaren gune sustatzailea irakaskuntza alorreko jendearen inguruan eratu da batipat, baina zabalik daude laguntasunerako. "Elkarte honetako bazkide izateko ez da gauza askorik behar: bakarrik, gure inguruko ondarea babesteko gogoia", diote kaleratutako agirian. "Elkarte honek talde lanerako aukera on bat eskaintzen dizu: horrela helburuak hobeto lortuko ditugulakoan gaude". Hori dela eta, lehen batzar orokorrerako dei zabala egiten diete Deba Garaiko bizilagun guztiei. Batzar hori irailaren 24ean izango da, arratsaldeko 7etan, Bergarako UNEDen aretoan. Harremanetarako ere, UNEDera jo, edo telefonoz dei egin, 761342 zenbakira.

Prestakuntza laburraren ondoren: Mondra-Elgoibar derbia

Arrasateko Hiria futbol txapelketaren finalean, asteazkenean, Aloña Mendik irabazi zion Kajoi trofeoa Aretxabaletari (2-1). Mondra futbol taldeak ez zuen finalera iristerik izan. Joan den larunbatean jokatu ziren txapelketako bi sailkapen partiduak, eta Mondrak 0-1 bat galdu zuen Aretxabaletako UDaren aurka. Iñaki Zeziagaren taldea ez zen finegi ibili, gehiegi berotu gabe daude jokalariek aurre-denboraldi honetan, eta aldiz,

Aretxabaletakoak, regionaleko taldea izanik, ekipo indartsuago bati gogor ekiteko ilusioarekin etorri ziren eta horrela irabazi zuten. Beste finalerdian Aloña Mendik 5-0 irabazi zion Eskoriatzari.

Aretxabaletarekin etxean galdu arren, beste bi partidu jokatu ditu Mondrak, eta biak irabazi, talde eskastxoagoen aurka. Abuztuaren 21ean, Zarautzen jokatu zuen eta 1-3 irabazi zuen Mondrak. 24an, Elorrioren 1-5 irabazi zuen.



Liga txapelketa igandean itzuliko da Atxabalpera.

Hurrengo konpromezua Ligako lehen partidua izango da, Atxabalpen igandean, arratsaldeko 5etan, Elgoibarraren aurka. Elgoibar 2. B mailatik jaitsi berria da, eta, beraz, talde zaila egokitu zaio Mondrari lehen partidu hone-

tan. Deba bailarako derbia ere izango da denboraldiko lehen neurketa hau, eta interes berezia izango du horregatik. Hurrengo igandean Balmasedari bisita egingo dio Mondrak, regionaletik igo berria den talde bati.



Arrasateko Udaleko Kultura Batzordeak

Pintura Irakaslea

aukeratu nahi du Monterron Kultur-etxeko pintura eta marrazki ikastaroak emateko. Eskariak aurkezteko epea irailaren 30ean amaitzen da.

Izenematea eta informazioa Udaletxeko Kultura Sailean.

AUKEA eta kirol taldeen arteko gatazka

Arrasateko klubuen eta kirol instalazioak kudeatzen dituen AUKEA udal erakundearekin artean polemika bizia dago piztuta, AUKEAk kirolari federatuei kuotak ordainarazi nahi dizkiela eta.

Orain arte, AUKEAn pater hartzen duten Arrasateko klubek (24 talde) ez dute beren federatuengatik kuotarik ordaindu behar izan, kirolari horiek kiroldegiak erabili ahal izateko. AUKEAk egoera hori injustoa dela uste du, eta daukan defizitarekin, diru iturri osagarri gisa pentsatu dute neurria. AUKEAko zuzendaritza batzarrean kuota ezarpena onartu egin zen, baina klubek beren desadostasuna azaldu dute ondoren. Beren



Kiroldegira sartzeko kuotak ordaintzea da arazoaren kokxa.

ustez, klubek nahikoa lan eta sakrifizio egiten dute dagoeneko kirola bultzatzeko, eta kirolariengatik kuotak ordaindu beharrak karga handia suposatzen die

Oraingoz, bere hartan diraute jarrerak, baina badago

konponketarako denborarik, abendura arte. AUKEAk kuota bakoitzean % 25eko deskontua proposatu zien klubei, baina geroztik, deskontu hori handitu egin daitekeela ere komentatu da.

LABURRAK

K-2 bueltan, tontor barik

K-2 mendirako Astore-Kutxa espedizioa larunbatean itzuliko da Euskal Herrira, tontorrik lortu barik, baina mendizale guztiak ondo. Bost atxabaltar eta bi nafarrek osatutako espedizioaz ez zen berririk izan uda parte handienera, uztail hasieran satelitezko telefonoa hondatu zitzaientik. Mendira hurbiltzen arazo asko izan zuten, eta tontorrera erasoan, Iñurrategi anaiak, Felix eta Alberto, 8.100 metroan geratu ziren, elurra bigunegi zegoela eta, gorago ezin joanda. Bueltan, abuztuaren 24an lortu zuten etxera deitzea. Mendizaleak larunbat eguerdian iritsiko dira Sondikara, eta arratsaldez Aretxabaletara.

DAGLAS bideo-kluba

AUKERA BERRIA!!
BIDEO-BANKA


- Aukera zabala.
- 300 pelikula baino gehiago.
- **NOBEDADE GUZTIEKIN!!**
- 6, 12 edo 24 ordutarako alokairua.
- Inolako gastu extra barik eskura dezakezu zure txartela.
- **Edozein ordutan eta edozein egunetan prest!!**



Otalora, 25
Tfnoa: 79 78 19
ARRASATE



Eskolako hamabostaldia



Araba Etorbidea, 18 ARRASATE

Kirol jantziak prezio onenean

ARRASATE KIROLAK

Kontzezino kalea, 8
Tfnoa: 79 46 12
ARRASATE

Elikagaien kontserbazioa eta teknologia berriak(I)

Gizakiaren lorpenik handienetako bat elikagaien desegitea eta deskonposaketa atzeratzea izan da eta elikadura edo alimentazioaren arloan hainbat industria sortu da. Horiei esker elikagaiak urte guztian zehar edukitzeko bidea dugu, eta horrekin batera geografikoki distribuzio hobea, kostu txikiagoa eta etxeetan erosotasun handiagoa.

Janari freskoek denbora gutxi irauten dute eta gizakiak hainbat prozedura erabili ditu kontserbaziorako historian zehar, hala nola gatza (gazitua), ozpina, olioak, kea, edo izozteko elurpean sartu ere egin ditu eta baita latarratu ere. Une honetan kontserbaziorako era berriak daude, liofilizazioa, hutsean ontziratzea, atmosfera kontrolatuak edo irradiazioa (ionizazioa). Hurrengo argitalpenetan emango dugu horien berri.

Alimentaziaren arloko teknologiak, beste arlo batzuetakoak bezala, aurrerapen izugarria izan du mende honetan, baina azpimarratzekoa da azken urte hauetan sartu dela aldaketa eta berrikuntzarik gehien.

Elikaduraren munduko

bilakaera hau, teknika eta zientziaren arloko aurrerapen handiekin bat dator alde batekin, eta gizarteko ohituretan izan diren aldaketa handiek sortu dituzten beharretatik, jateko orduan ditugun ohituretan sortu diren aldaketengatik, beste aldetik. Eragile

sozio-kultural horiek direla eta, munduko populazioaren hazkunde garrantzitsuarekin batera, elikagaien produkzio eta kontserbazioaren arazoa ikuspuntu berrietatik begiratzera eramaten gaituztenak


M^a TERESA ALONSO



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



asko dira ikastetxe hartatik pasa diren mondrauetarrak, eta horietako ezagun kuadrila handi bat da gaurkoa. 1956-57 ikasturtean ateratakoa da. Urte askoan zehar egon zen Santa Barbaran klaseko erretratua ateratzeko ohitura. Ikasturte horretan mendi horretako pago eta haritz gehienak bota egin zituzten, eta Munar aldeko pinadia eta Gazteluondotik Arrasate Pasealekuaren arteko zumardia bakarrik geratu ei ziren.

Goiko iladan, **A. Gonzalez, F. Satrustegi, Osés, I. Zuazubiskar "Korrio", A.**

Iturbe "Kañero", S. Arkauz, Otadui, Gardoki eta J. Urizar.

2.ean: **P. Etxabe, Goikoetxea, F. Balanzategi, J.L. Talledo, J. M. Velez de Mendizabal, J. M. Odriozola "Kuski", Gordoia, Etxebarria, N. Elgezabal "Niko", A. Altube, A. Zubia "Perikin", J.L. Vitoria, B. Sagasta eta Iarza.**

3. iladan: **J.T. Iriarte "Takolo", A. Billar, E. Saez de Maturana, Foronda, F. Uribetxeberria, A. Barandiaran, J. Azkarate, J.L. Ezkurra, A. Loiti, F. Senar, J. L. Larrañaga, A.**

Urrutia, A. Abasolo "Kopi", J.L. Eriz eta Kruzeta "Murri".

4. iladan: **A. Zubiaga, Bedia, J. Antia, J.J. Saenz "Limín", Zubiaga, Romero, J. Ansoategi, Beitia, Mendiartz, Garai "Txatoto", J. Bergara, G. Oro-bengoa eta J. Markos "Txutxi".**

5. iladan: **M. Zubia "Txona", J.K. Garai, K. Olmedo, J.L. Otadui, M. Goñi, J. I. Zaitegi, Marteatxe, J.L. Txintxurreta eta Garmendia "Pana".**

Maixua Alfredo Lopez Cano zen, "Alfredo Tacones" ere deitzen ziotena.

rain San Viator dena, garai baten Colegio San Jose zela gauza jakina da. Asko eta



Mondeo

M MUGARRI

Mondeo



Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.

ARKAZU

Sukaldeak

Sukalde integratuak



Banatzaile ofiziala

Mitarte, 3
Tfno, fax: 77 04 55
ARETXABALETA



FAGOR

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- Eskoriatzan etxebizitza amueblatua alokatzen dut. Tfnoa: 79 87 26.
- Garaje plaza bat alokatzen dut. Tfnoa: 79 79 12.
- Irailean etxebizitza alokatzen da Ezkarain. Tfnoa: 79 31 56.
- Neskak behar dira Bilbon pisua osatzeko. Tfnoa: (94) 416 01 00. Jaione B.
- Pisua topatzeko pertsona behar da edo etxebizitza baten gela libre bat. Dei egin goizeko 9etatik 2etara 79 16 57 tfnora. Natxo.

Lana

- Lizentziatu esperientziadunak ingelesezko klase partikularrak emango lituzke uztailean. Tfnoa: 79 26 21. Ane.
- Uztailean ingelesezko klase partikularrak ematen dira. Dei egin goizetan 77 05 77 tfnora.
- Ingelesezko filologoak logikako klaseak hartuko lituzke uztailean. Tfnoa: 79 35 56. (Maite).
- O.H.O., Batxilerrak eta ingelesezko klase partikularrak ematen dira uztailean. Tfnoa: 79 04 76.
- Sukaldaria behar da Santanderreko Nojan taberna baten lan egiteko. Udako denboraldirako. Tfnoa: (942) 63 01 31.
- Emakume edo neska euskalduna eta esperientziaduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 89 96. Maria Eugenia.

- Emakume esperientziadunak etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 60 18. Mari Karmen.
- Klase partikularrak ematen dira: OHO eta REM. Italiara ikasteko aukera ere oraintxe daukazu. Tfnoa: 79 69 80

Salerosketak

- Kotxea salgai: urrian erositako Renault Clio bat. Garantian dago. Tfnoa: 79 13 88 (Lorea).
- Mar-Puma markako karro-denda salgai. Bi urte ditu (60 egun erabilia). 2 logela, abanzea, arkoia eta serbo-frenoa. Tfnoa: 79 76 07.
- Opel Kadett 1.6. S salgai. Matrikula SS-Y. Tfnoa: 76 00 39.
- Gasezko sukaldaria erosiko nuke, plaka handiak daukanez, galdara handiak jartzeko modukoa. Tfnoa: 79 40 53. Maite.
- Umeen mountain-bike bizikleta salgai. GAC 4x4 markakoa. Estreinatuta barik dago. Amortiguadoreak ditu eta kanbio gabekoa da. Prezioa: 8.000 PTA. Tfnoa: 79 27 88.
- Abereak gustoko badituzu, kuixaren bat interesak dakizuke. Bedarra eta ogia jaten dute eta ura ere behar dute. 250 PTAren bakoitza.

Tfnoa: 76 32 18 (astelehen, ostegun eta larunbatetan gaueko 7etatik 9etara). Itziar.

- Honda Px 50cc. 2 cv salgai. Lau urte. Ondo zainduta. 70.000 PTA. Tfnoa 79 97 84. Patxi
- Canon EOS-650 argazki kamara saltzen dut. 35/70 Canon objektiboa. Nikolas Uribarren. Tfnoa 79 23 60. 20'00etatik 22'00etara.
- Karabana bat salgai. la Berria. Tfnoa: 77 04 98. Alberto

Denetarik

- Martitzen 13an goizeko 10etan Zentro Asistentzial eta Anbulategi tartean dagoen telefonaren Kabinan Kartera bat utzi nuen ahaztuta. Norbaitek aurkitu badu, deitu 79 17 88 Tfnoa. Karmen.
- Datorren ikasturtean Bilbora egunero arratsaldez joateko interesatuek dei egin 77 08 32 tfnora.
- Sn Judas Tadeori bederatziruena, Jesusen bihotz santua, izan bedi maitatua, aintzatua eta babestua mundu guztian, orain eta beti. Jesusen bihotza, otoi gure alde. San Judas, etsita daudenei laguntzen diezuna, otoi gure alde. Egizu otoi hau bederatziru egunez eta zortzigarrenean argitaratzea agindu. Eragin handikoa da; izan ezazu fede, eta mirariak ikusiko dituzu.
- Kaixo Kris, Estibi, Kris eta Felix. Zorionak, Sharrynen partez. Sentitzen dut lehenago zoriondu ez izana. Zuekin pentsatzen dut eta onena opa diuzet.

Aste Gazte

Lanpostuak

• Gipuzkoako Diputazioak aurtengo enplegu eskaintza publikoa argitaratu du, guztira, 305 lanpostu. Baseak: uztailearen 26ko G.A.O.n.

Bekak:

• 93-94 ikasturtean unibertsitate eta goi mailako ikasketak burutzeko bekak: lizentziatu, injinari, arkitektu, diplomatu, 25 urtetik gorakoak Unibertsitatean sartzeko UNEDeko ikastaroak, musika, dramate eta kantu

goi mailako ikasketak, erlijio goi mailako ikasketak, soinu hezkuntza, marina, turismo eta errestaurazio Eskoletako ikasketak eta goi mailako ikasketak militarrik. Epea: urriak 15.

• 93-94 ikasturteko Lan-kidetza Bekak. Unibertsitate ikasketetako bigarren zikloko azken kurtsua egiten ari diren ikasleei zuzenduak.

Ikasleentzako alojamenduak

• Donostia, Bilbo, Gasteiz nahiz Iruñean alojamenduak

dua lortu behar duzuenok informazio zerbitzu berri bat izango duzue irailean 15etik aurrera, Donostiako Garibai kalean, 20-behean, kutxaren bulegoan. Ordutegia: 10-13 eta 16-19.

Lehiaketak

• Bergarako Aire Zabalako XX. Pintura Lehiaketa. Irailaren 12an. Gaia: Bergarako hirigunea.

* Gazteria eta Ingurugiroa II. Argazki Lehiaketa. 30 urtetik beherako gazteei zuzenduak. Zuri beltz nahiz koloretan. Epea: urriak 22.

« Konfidantza dut itxaropenik eta irtenbiderik gabe dagoen gazteriaren gan, azkenerako egun batean errebelatu egingo baita.»

ERNESTO SABATO ARGENTINAR IDAZLEA



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

BERTSOAK

Oporrak bukatu

Kotxe, autobus, tren eta abioi ezkutatu zan jendia Jaunai eskerrak atzera berriz geienak etorri dia etxean nola falta izaten dan kanpoan errez utzia lantegiaren aurrian askok dute aurpegi tristia alaitu nairik txoko ontatik gure ongietorria

Lanaren zama aztuna dana probau duanak badaki noizian beingo oporraldi bat etorritzen da egoki estu alditan denok bilduta lagun deiogun alkarri berriak ere elduko dira ekin gogotsu lanari lanaren bidez jasoko dugu jasotzekotan Euskadi.


AGERRE

ZER NAHIAGO?

Agustin Algaba

Revolution Rock

dendakoa



- **Kontzertuetara joaten zara?** Bai, azkenengoan "El último de la fila" ikusten
- **Abeslari euskaldun bat?** Sanchis eta Jocano gustatzen zaizkit.
- **Musika tresna bat?** Gitarra.
- **Inbidiarik?** Bai, musikari profesionala izatearena.
- **Zer musika mota entzuten duzu?** Denetik, baina nik egiten dudana, batez ere.
- **Zer moduz dabilMalaña taldea?** Hobe joan litekeen.
- **Zein diskoren azala gustatu zaizu gehien?** Simpleak gustatzen zaizkit: "Cojón prieto y Los huajalotes" ena, adibidez.
- **Zinta ala diskoa?** Berdin zait, gustokoa eta ona bada.
- **Zein jende hurbiltzen da dendara?** Denetik, baina gazteak batez ere.

KONTZERTUA

CIUDAD SEGUNDO MONTES

MUSIKA TALDEA EL SALVADOR

Irailak 9, osteguna

Gaueko 10,30etan

Monterron parkean

Sarrera: 300 PTA

Gazte-txartelarekin 200 PTA



Arrasateko Udala



Jon Balentziaga

Artista bat Aita Mennin irakasle


Aita Menni Ospitaleko gaisoen zeramika eta pintura ikas-taroak zuzentzen ditu Jonek. Gor-mutua, artista ezaguna da, erakusketa ugari zabaldu ditu eta bere eskultura asko ikusgai daude toki publikoetan.

— Noiztik dago mar-txan pintura eta zeramika ikastaro hau?

— Orain dela hiru urte hasi zen Aita Menniko Ospitalean pintura eta zeramika ikastaroa. Emakumeen sailean dagoen ludoteka batean ematen dira klaseak eta nik, pinturak eta zeramikak egiten laguntzen diet. Orain arte, gaisoek eginiko lan guztiak gorde egiten ziren, baina orain-goan erakusketa hau egitera animatu gara. Azken finean, jende honekin lan egin daitekeela demostratu eta erakutsi nahi dugu erakusketa honekin. Gainera, beraientzat oso inportantea da lanak erakustea, jarraitzeko indarra ematen die.

— Zeintzuk dira gaisoek eginiko lan hauen ezaugarriak?

— Egia esan, ez dute ezaugarri berezirik. Gehienetan, bodegoi eta argazkien kopiak izaten dira eta ezaugarri berezirik ikustekotan, pinturan ikusten dira. Klaseetara etortzen diren 40 ikasleetatik, sei nahiko



bereziak dira, eta ez zaie gustatzen gehiegi laguntzea ere, bakoitzak bereak aukeratzen ditu. Gainera, bi begiraleen laguntza dut, askotan ez didate ulertzen eta beraiek esaten diete zer egin eta nola. Estiloari dagokionez, gehienek nirea kopiatzen dute, baina aipatutako sei hauek euren estiloa markatzen dute, bakoitzak gustokoak diren koloreak erabiltzen ditu.

.....

“Besteekin erlazio-natzeko zailtasunak, asko eragin du nire obran, gauzetan gehiago fijatzer behartzen nau eta”

— Nola definituko zenuke zure estiloa?

— Nahiko estilo modernoa erabiltzen dudala esango nuke. Erretratoak, bodegoiak eta aintzinako etxe barruak gustatzen zaizkit gai bezala. Eta kolore aldetik, berriz, urdinak erabiltzeko joera dut. Ez dut estilo bera erabiltzen pintura eta zeramikan. Zeramikan eta eskulturan, forma konkabu eta konbexuak gustatzen zaizkit.

— Zenbat erakusketa egin duzu?

— Asko, hamaika inguru, bi nire lanekin bakarrik eta besteak, beste artista batzuekin. Sari inportante batzuk ere irabazi ditut: Arrasateko IV. eskultura Simposiuma, Euskadiko elbarrituen pintura lehiaketa eta abar. Gainera, nire eskultura batzuk ikusgai daude toki publikoetan: Bergaran, Antzuolan, Lasarten...

— Besteekin erlazio-natzeko duzun zailtasunak izan du eraginik zure obran?

— Bai, noski. Gorra izateak detaile guztietan fijatzer behartu nau. Nik berez elaboratu ditudan gauzek eragin dute nire obran, eta ez besteek kontatu didatenak.

Aurten ere «Arrasate 93» lehiaketa AEDk antolatua

Adi artista! AED elkarteak, urtero urtero antolatzen duen **komiki, argazki, diapositiba eta bideo** lehiaketaren oinarri-arauak kalean baitaude. Aurten ere hamazortzi urtetik beherako gazteei, erreztasun handiagoa emango zaie parte hartzeko orduan. Hamazortzi urtetik beherako gazteek, kategoria berezi bat osatuko dute, bi mailatan banatuko delarik; lehenengo maila, hamalau urtertereko gazteek osatuko dute eta bigarren maila, hamalau-hamazortzi urte tar-tekoek. Hiru literatur esparru egongo dira aukeratan partehartzaileen artean: ipuina, poesia eta bertso-paperak hain zuzen ere. Deba Garaian bizi edo ikasten duten gazte guztiek har dezakete parte eta euskaraz idatzitako obra orijinalak izan behar-kodira eta gaia librea izango da. Lan guztiak, azaroaren 5a baino lehen bidali behar-kodira AED elkartera, nahiz eta epaimahiak finalistek zerrenda abenduaren hamabian emango duen. Irabazleak 20.000 PTAko saria jasoko du eta akzesitak 10.000 PTAkoak izango dira, opari eder bateaz.


LODITASUNA, LIPOESKULTURA, ZELULOLIPOLISIA.

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABAETA TFNOA: 79 13 54

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

ASTRONOMIA

MENDEAREN BUKAERA

Dakizueenez, laster dator mende honen bukaera eta gainera honekin batera bigarren milenioaren bukaera eta hirugarrenaren hasiera ere bai.

Jende asko ari da bere buruari galdetzen noiz ospatu beharko dugun milenioaren amaiera.

Batzuen ustetan, 1999garren urtea izango da milenio honen azkena eta 2.000garrena hirugarren milenioaren lehen.

Beste batzuk aldiz pentsatzen dute hirugarren milenioa 2.001garren urtearen lehen segunduetan hasten dela.

Entzunda daukat Arrasateko lagun batzuk gau honetaz kezkatuak daudela ere, eta apustuak ere badaudela tartean eta batzuen ustetan badaezpada komenigarriena bietan ospatzea dela. Azken hauek betiko juergazaleak, noski.

Gure iritzia ez dizuegu honetan eman behar, baina bai hurrengo batetan.

ERNEST BORN



Sari banaketa, Monterronen izango da.

«Iokin Zaitegi» VII. Itzulpen Laburren lehiaketa

Aurten ere eta AED elkar-teak antolatua, Iokin Zaitegi itzulpen laburren sariketa ireki da Arrasaten. AED elkar-teak, «Iokin Zaitegi» arrasatear idazleari jarraiki, sarritan eskuragaitza den mundu zabaleko zenbait informazio berri eskeini nahi dio euskaldungoari, gai zehatz bati buruz bada ere.

Horregatik, eta itzulpengintza sustatzeko asmoz eta helburuz, Gipuzkoa Donostia Kutzaren eta Arrasateko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, sariketa honetarako deialdia zabaldu du.

Beste sariketa batzutan ez

bezala, sariketa honetan edozein pertsonak hartu dezake parte, nahiz eta Arrasatekoa ez izan. Aurtengo gaia, «Jugoslavia Ohiko Aldaketak» izango da, gai honek duen gaurkotasuna dela eta. Lehiaketara, gaztelaniatik izan ez ezik, munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez daitezke, hizkuntza bera eta bere zailtasuna kontutan hartuko direlarik. Testuaren luzeerak gutxienez hamabi eta gehienez 25 orrialdekoa izan beharko du eta lan guztiak AED elkartera bidali beharko dira azaroaren 5a baino lehen. Epaimahaiak finalisten zerrenda abenduaren

12aren inguruan jakineraziko du, nahiz eta behin betiko erabakia Santamasetan, abenduaren 21ean egingo den ekitaldi publikoaren barruan jakineraziko den.

Irabazleak, 250.000 pta.ko saria jasoko du eta finalera heltzen direnek 50.000 PTA.ko akzesit bana eraman-goto dute. Sari ederrak, dudarik gabe, itzulpen sariketa honetan partehartzera animatzen diren guztien artean, lanik onenak burutzen dituztenentzat.

Sariketa honen deialdia Arrasatek kanporakoa denez, AEDk, jende guztia animatzen du.

Garagartza auzoan
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE


UGARAN
jatetxea

Arreta handiko
sukaldea.
Giro abegikorra.

• ESAERA ZAHARRA •

“Dagoenean bonbon, ez dagoenean hor konpon”

• JEROGLIFIKOA •



Aurrerabidean:
Gaur bat...

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						
9					10	
11				12		
13			14			15
16			17			
		18				

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Haragikoi. 8. Kalea, komunitate autonomo izenaz. 9. Abereen gaisotasun kutsakorra. 11. Gurdi hitz elkartuetan. 12. Donostiako grabaketa estudioak. 13. (Ald.) Andrakoi. 16. Litioa. 17. Haur hizkeran txakurra. 18. (Ald.) Aiurri

Bertikalak 1. Bulego. 2. Itzuli. 3. Zaplada. 4. Diti. 5. Izenorde galdetzailea. 6. Errepidea. 7. Fleming. "007" sortu zuenaren izena. 10. Jela. 14. Etxe sarrera. 15. Garai.

• HOROSKOPOA •

Aries Abisatu nizun opor ostean xoxik gabe geratuko zinela.

Taurus. Zure nahia eguzkia hartzea bazen ere, galdu dituzu hori egiteko aukera guztiak.

Gemini. Izan duzu nahiko denbora lanerako indarberritzeko.

Cancer Oporretan ezagutu zenuen lagunak ez zaitu ahaztu. Oraindik bizi bizi-rik zaude bere oroimenean.

Leo Jadanik batuketak egiten ere ahaztu zaizu. Espabilatu!

Virgo Iraila gaizki hasi duzu. Amodio kontuan, frakasoz frakaso!

Libra Ez zara bat ere aldatu, lehen bezain zikina izaten jarraitzen duzu.

Scorpio Orainarte sekula imaginatu ez duzun norbaiten bisita izango duzu.

Sagittarius Katu bat erosi nahian bazabiltza, ez ezazu beltza erosi, zorte txarra ekartzen dute eta.

Capricorn Sekula baino politagoa zaudete, beltz-beltz eginda.

Aquarius Opor ahaztezin hauek datorenen urtean ere errepikatuko dituzu.

Piscis Zure denbora librea ase ezinik bazabiltza, joan zaitex mendira.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.


Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

· PILI OTXOAREN GOMENDIOA ·



Udako oporren osteko gogoeta egiten digu Pilik, berriz ere lanera bueltatu garen honetan. "Gorputzean beste armonia bat sentitzen dugu, energia berri batekin etortzen gara, bakoitzak bere modura pilak kargatuta eta indarberrituta". Piliaren gomendioa, garai hauetan bizi izandako esperientziak edo pasadizoak oroimenean ondo gordetzea, "argibide eta baliabide indartsuak izan daitezen gure espektatibak eta helburuak bete ahal izateko".

· KOMIKIA ·



· PROGRAMAZIOA ·



Irailekin hasierarekin ekin diogu ATBn programazioari. Ikusi ahal izan duzuen bezala, oraingoz informazioaren tarteari bakarrik egin diogu leku eta ohizko programazioa, prestatzen ari garen pregrama, gonbidatu eta aurkezle berri eta guzti, ez dugu urrirra arte ekarriko. Beraz, sorpresaren zai egon beharko duzue.

Datorren astean ere Berriak informazio saioa iluntzeko 8etan hasiko da, eta 8.30etan eta 9etan errepikatuko. Iraileko bigarren hamabostaldian pelikulak ere izango dituzue aukeran. Horrekin batera, baita urtean zehar ATBn egindako programa berezian errepikapena ere, ikusterik izan ez baduzu edo. Iragarriko ditugu garaiz. Ikasturte hasiera on!"

· SOLUZIOAK ·

Bihar bi.

JEROGILIFIKOA

Izotz. 14. Aie. 15. Goi.

Fra. 4. Ugaz. 5. Nor. 6. Kaminoa. 7. Ian. 10.


Bertikalak: 1. Langelia. 2. Iraitz. 3. Za-

16. Lt. 17. Toio. 18. Izatera.

9. Nafarrin. 11. Gurt. 12. Iz. 13. Gonzale.

Horizontalak: 1. Lizunkot. 8. Aragoa.

GURUTZERAMA



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak


Uribe Auzoa

ARRASATE

Tfnoa: 79 98 94



BEHERAPENAK!



**OKENDO
KIROLAK**

*Merkealdietako
lehen eguna*